

Herririk Herri |3|

Inbestidura ekitaldietan aurreikusitako hautagaiek lortu zuten alkatetza



Berbaz |8|

J.M.Bilbao: "Apurka-apurka, Intxaurre jendea batzeko erreferente bihurtu da"

Kultura |13|

Markeliñeren lan berriagaz hasiko dute Uda Kalen Bizi ekimena Durangon

Baserrietan lapurretak ekiditeko aholkuak eman ditu Ertzaintzak

Durangaldea • Azken urteetan lapurreten kopurua igo ez den arren, baserritarrek "neurriak" hartzearen garrantzia azpimarratu du Ertzaintzak: "Jabeak etxean direla ere, sartu izan dira". Iurretan eta Berrizen lapurreta kopuruak gora egin du, eta herri horietan arreta bereziagaz dabiltzala adierazi dute.

4

Goiuriko kofradiak udala salatu du, zabortegia dela-eta

Iurreta • Bost urtean itxita egon ondoren, obra lizentzia eman zion abenduan Iurretako Udalak Goiuriko zabortegiari. Baldintza guztiak betetzen dituela-eta, baimena ematera "derrigorturik" zeudela dio Iñaki Totorikaguena alkateak. Goiuriko kofradiak eta norbanako batek salaketa ipini diote udalari.

6

30. urteurrena ospatuko du bihar Elorrio Rugby Taldeak

KIROLA • Herri-afaria, Erlaxi taldearen erromeria eta suzko zezenak izango dira, besteak beste, Elorrio Rugby Taldeak sortu zeneko 30. urteurrena ospatzeko antolatu duen jaiari. Taldearen historia errepasatu dugu Asier Igarza jokalariaigaz.

15



•Durango

Munduko Arrozak ekimena ospatuko dute bihar Ezkurdin

4

•Berriz

Tailerrak egingo dituzte familian euskararen transmisioa lantzeko

2

•Durangaldea

San Joan suak eguen gauean

3

Datorren astean itxiko dute Ductilor-Fytasa

> Gaurkoa izan da azken produkzio eguna 90 langile dituen Elorrioko enpresan

> Enpresa komitearen esanetan, epaileak itxeko agindua emango du datorren astean

2



Ductilor-Fytasa enpresako goizeko erreleboko langileak, atzo, lantegiaren atarian. Kepa Aginako

Altzariak Dekorazioa

Bilbo etor. 9 behea
48250 Zaldibar
Tel.: 946 22 50 74
maderlan@orange.es

maderlan

HERRIRIK HERRI >

ELORRIO

Gaurkoa izan da azken produkzio eguna Fytasan

Otsailetik likidazioan dago Ductilor-Fytasa. Aste honetan azken eskabideei erantzuteko beharrak egin dituzte; datorren astean itxiko dituzte ateak



Murrizketen kontrako protestan, 16 eguneko greba egin zuten iazko martxoan. Juanra de la Cruz

Ate asko jo ditugu, baina ez diogu egoerari irtenbiderik topatu". 2008tik Fytasa-Ductilorren egoera ekonomikoa geroago eta txarragoa izan da, eta otsailetik likidazio egoeran dago enpresa. Bezeroek, egoera zein den ikusita, azken hileotan norma-baino lan gehiago eskatu diete, eta behar horiek amaitzen jardun dute aste honetan. Datorren astean epaileak zarratzeko agindua eman-godu duela azaldu digu enpresakomiteko buru Igor Cengotitabengoak.

Zorrak zirela-eta, konkurtso egoeran egon da enpresa: "Inbertsoreak bilatzen ahalegindu gara, Eusko Aurlaritzagaz batu gara, enpresa guk hartzea ere pentsatugugu, baina azkenean ez dugu irtenbiderik topatu", esan du Cengotitabengoak. Likidazio egoeran

daudenetik, ugazaben berririk ez dutela salatu du komite buruak.

2008tik, gero eta txartoago

Duela hiru urte 160 langile zebiltzan fundizioan lanean. Orain 90 daude. Enpresaren egoera "zuzendaritzaren kudeaketa txararen errua" da, langileen ustez.

2008an, bezero garrantzitsuenak, Boshek –"produkzioaren %60-70 eurentzako zen"– bezero izateari utzi zion. Handik gutxira enplegu erregulazio espedientee-kin hasi ziren. 2010eko martxoan 16 eguneko greba egin zuten lan-

Duela hiru urte 160 behargin zituen Fytasak. Azken aldian 90 pertsonak jardun dute

gileek, 21 kaleratze barneratzen zituen bideragarritasun planaren kontra. Akordiora heldu ziren, 14 langilek euren borondatez enpresa utzita. "Greba garaian Italiako bezero garrantzitsu bat zuzendaritzagaz haserretu zen, eta ez du ia lanik eskatu ordutik".

Poloniako lantegia

2007an Fytasak Polonian lantegi bat zabaldu zuen. Hango egoeraz informazio gutxi dutela azaldu du komite buruak: "Esan digutenez, egoera oso txarrean daude. Zor handiak dituzte, gehienak gugaz". Poloniako inbertsioek Elorrioko lantegian eragin handia izan duela uste dute: "Diru asko sartu da han, eta hemen inbertsiotarako eta guri ordaintzeko arazo handiak egon dira horregatik". ■ A.Ugalde

Belaunaldien arteko hartu-emanak bultzatzeko belaunaldien arteko martxak arrakasta handia eduki zuen, joan zen domekan. Martxa aurretik 278 lagunek eman zuten izena, eta gehiago ere hurreratu ziren Elorrioko auzoetan zehar ibili eta goiz-pasa egitera.

Hiru ibilbide antolatu zituen Erdella mendizale taldeak domekarako, eta San Agustinetik Aldatzekuara, batzuk kilometro gehiago eginda beste batzuk gutxiago, elkarrekin bidea egin eta berba egiteko aukera eduki zuten hainbat adinetako lagunak.

Bizkaiko Nagusiak elkarteak, Elorrioko La Esperanza nagusien elkarteak, udala eta amankomunazgoa izan dira martxaren antolatzaileak. Lehenengo esperientzia honen ondoren, datozen urteetako hitzordu bilakatu daiteke martxa hau gure eskualdean. ■ A.U.



San Agustinetik irten ziren martxako hiru taldeak. J.Ugalde

KRONOLOGIA

2007: Fytasak lantegia zabaldu zuen Polonian.

2008: Fundizioaren bezero garrantzitsu batek, Boshek, bezero izateari utzi zion.

2008ko amaiera: Lehenengo Lan Erregulazio Espedientea.

2009ko iraila: Zorrak zirela-eta, konkurtso egoeran sartu zen enpresa.

2009ko abendua: Bideragarritasun plana proposatu zuen Ductilorrek; ERE berria eta 21 pertsonari kaleratze espedien-

tea zabaltzea, besteak beste. Langileek itxialdiak eta manifestazioak egin zituzten.

2010eko martxoa: Murrizketen kontra greba mugabakoa hasi zuten langileek. 16 egun eta gero, akordioa lortu zuten. Enpresak kaleratu gura zituen 21 pertsonak barik, 14k utzi zuten enpresa, euren borondatez.

2011ko otsaila: likidazio fasean sartu zen enpresa. Epaileak itxiera agindua noiz emango zain daude. ■ A.U.

Konkurtso egoeran urte eta erdi, eta azkeneko hilabeteak likidazioan

Fytasa eta Ductilorrek ezin zituzten zorrak ordaindu, 2009ko irailaren 15ean epaileek konkurtso egoera deklaratu zuen bi enpresentzat. Fytasa sozietate anonimoa fundizioaren administrazioaz eta salmentez arduratzen izan da, eta Ductilor sozietate mugatuko langileek fabrikazioan egin dute lan Fytasarentzat.

Konkurtso egoeran egonda, administrazio konkurtsal bat izendatu zuten enpresako diru kontuak aztertzeko. Aktiboa eta pasiboa aztertu eta hartzekodunei informazioa eman izan die

administrazioak. Soldatak Fogasak ordaintzen izan ditu.

Konkurtso fasean, legez, enpresako zuzendaritzak hitzarmen bat proposatu behar die hartzekodunei, eta horrela egin zuten aurtengo otsailaren 15ean. Hartzekodunen gehiengoak onartu behar du hitzarmena aurrera egiteko, baina otsailko batzar horretan ez zen behar beste hartzekodun agertu. Horiek horrela, likidazio fasean sartu zen enpresa. Orain administrazio konkurtsalak Fytasa desegin eta likidazio prozesua kudeatu behar du. ■ A.U.

BERRIZ

Familian euskararen transmisioa lantzeko tailerrak eratuko dituzte

Bikote gazteen hizkuntza ohituretan eraginez, euskararen erabilera aktibatzea dute helburu

Berrizko Udalak guraso eta bikote gazteei euren seme-alabekin euskara egunerokoan erabili ahal izateko bitarteko, baliabide eta aholkuak emango dizkien tailerrak eta saioak eratuko ditu uda ostean. Oinarri bat finkatze aldera, has-teko, datozen egunetan errolatik abiatuz telefono bidezko inkesta egingo diete guraso eta bikote

gazteei. Besteak beste, euren seme-alabekiko jardunean euskararen erabilera dauzkaten "gabezia eta beharrianak" antzematea gura dute.

25-39 urte bitarteko ezkonberriak, ezkongabeak edo haurra izan berri dutenak izan daitezke tailerreko parte-hartzaileak.

Euskararen erabilera "guraso modernoaren ereduaren barruan" kokatu gura dute, "haur euskaldun zaharrek eta elebidunen artean aktiboek gora egiteko, kopuruan eta ehunekoetan". Ohiturak aldatuz, erabilera aktibatzea dute helburu. ■ M.O.

Datozen egunetan telefono bidezko inkesta egingo diete guraso eta bikote gazteei

DURANGALDEA

Itxaroten zena bete zen zapatuko agente-hartzeetan

Elorrión EAJko Ana Otadui izango da alkate, PPk botoa eman eta gero

Ezen sorpresarik izan inbestidura ekitaldian. Tentsioa bai, Elorrión. Bildu izan zen zerrenda bozkatuena maiatzaren 22ko hauteskundeetan, baina koalizioak eta EAJk zinegotzi kopuru bera eskuratu zuten: sei. PPk zeukan giltza, eta Carlos Garcia zinegotziak aurretik esandakoa bete zuten; EAJri botoa eman zion, eta Ana Otadui izango da alkate.

EAJko eta PPko zinegotziek berba egiterakoan, aretoan batutako gehienek, zutunduta, bizkarraren emantziak. "Jasotako oihu eta mehatxuengatik" salaketa mozioa aurkeztu du PPk.

Bestalde, 16 urteko hegemonia eten du Bilduk Mañarian; Endi-

ka Jaiok hartu zuen agente-makila Jabier Arteagaren eskutik. Zaldibarren ere Bilduko Arantza Baigorri hartu zuen kargua, ekitaldi hunkigarrian.

Aldaketa barik

Gainerako herrietan ez da agente aldaketarik gertatu, alderdiei dago kienez. Durangon, Aitziber Irigoras (EAJ) eta Urdaspal Bolinaga (Bildu) berdinduta geratu ziren, Aralarrek Bildu babestu ondoren.

Elorrio, Zaldibar eta Mañaria kenduta, gainerakoetan ez da alderdi aldaketarik egon

Hauteskundeetan bozkatuena izatearren, Irigoras izango da alkate.

Abadiñon Aiko Jose Luis Navarrok jarraituko du alkate; EAJ abstenitu egin zen. Iurretan EAJko Iñaki Totorikaguenak jarraituko du alkatetzan, alderdi guztiek euren burua babestu eta gero. Berrizen, PSE-EE abstenituta, Orlan Isoird jeltzalea da alkate. Bilduko Rosa Mari Elizburu, Santi Uribe, Luis Jose Ballarin eta Mila Mondragon dira alkate Atxondon, Otxandion, Izurtzan eta Mallabian, hurrenez hurren. Garain Herriko Taldeko Gontzal Sarrigoi tiak jarraituko du. ■ M. Onaindia.

> Bideoa: www.anboto.org



Durangoko udalbatzaren talde-argazkia, zin egin ondoren.



Dantzariak agurra eskaini zioten Jaio (Bildu) alkateari Mañarian.



Elorrioko ekitaldian, tentsio handiko uneak. J. de la Cruz



Abadiñoko agente-hartzea, Navarro (AI) buru dela.



Zaldibarko alkate berria da Arantza Baigorri (Bildu).

Administrazioan eta metal arloan indarra hartu du LABek

Hauteskunde sindikalak baloratu ditu LABek

Hauteskunde sindikalen emaitzak baloratu ditu eskualdeko LABek. Hego Euskal Herri mailan, Bizkaian zein Durangaldean gora egin dutela nabarmendu dute sindikatuko kideek. Eskualdean, bigarren indar sindikala izaten jarraitzen du LABek.

Osasungintzan eta irakaskuntzan lortu ditu ordezkari gehien LABek

Eulate Zilonizaurrekoetxea LABeko ordezkariak hauteskunde sindikalen emaitzak "oso onak" izan direla baloratu du: "Enpresa handietan finkatuta daukagu ordezkariak eta txikitzen indartzen gabilta". Bide beretik jarraitu eta indarra hartu gura du sindikatuak datozen urteetan.

Administrazio publikoan eta metal arloan izan dituzten emaitzak nabarmendu ditu Zilonizau-

rrekoetxeak: "Krisialdiaren eta lan erreformaren kontra ekintza zuzena egin du LABek, eta jendeak eskertu egin du hori; argi daukate ez garela emaitza on batzuekin konformatuko; gauzak aldatzeko beharrea jarraituko dugu".

Aipatzekoak dira osasungintzan eta irakaskuntzan eskualdean izan dituen emaitzak; osasungintzan hirukoiztu egin du ordezkariak (% 6,67 izatetik % 19,23 edukitzera). Metal arloan duela lau urte ordezkarien % 27,01 zuen LABek; aurtengo hauteskundeetan ostean, % 29,58.

Eskualdeko mapa sindikala

Durangaldean ELA sindikatuak dauka ordezkari gehien: % 37,09. -duela lau urte % 38,05 zituen-. LABek ordezkarien % 27,72 lortu du -duela lau urte % 26,55-. Hauteskundeetan ostean, "eskualdean gehiengo sindikala indartuta" dagoela nabarmendu dute LABeko kideek. ■ A. U.

Hamaika su txiki hilaren 23an, San Joan bezpera ospatzeko

Axpen, esaterako, dantza, erromeria, bertsoak... izango dituzte girotzeko

Hilaren 24a San Joan eguna da, eta bezperan, tradizioari eutsiz, suak piztuko dituzte eskualdeko hainbat txokotan. San Joan gauean, suagaz batera, donien atxa jasoko dute Axpen, eta berakatz zopa eta txokolatea banatuko dituzte. Barikuan igel, briska eta esku

Mallabian, Goitaa auzoan, donien atxa jaso eta sua piztuko dute egunean

Berrizen, Zo Zongó taldeagaz kalejiran irten eta Berrizburun piztuko dute San Joan sua

pilota txapelketen ondoren, Jo ta Su taldeak erromeria eskainiko du. Zapatuan bakailao eta tortila txapelketak egingo dituzte; ondoren, pilotalekuan afalduko dute. Dantzaz eta bertsoz osatutako ikuskizuna ere egongo da eta, 22:30 inguruan, Luhartz taldeak erromeria eskainiko du. Domekan,

dantzak eta gazteentzako pila-zoak egongo dira.

Durangon, aurten ere Herria auzo elkarteak ez du surik egingo. San Fauston seguruenik egingo dute, baina toki bila dabilta. Kriskitin dantza taldeak aurten Datzelugatzeko San Joan inguruan eskainiko du Akelarrea.

Abadiñon, hilaren 23an, 17:00etatik aurrera, umeentzako jolasak, ipuin kontalaria eta txokolate-jana egongo dira, eta ondoren sua piztuko dute.

Iurretan, 20:30ean, plazan afari herrikoia egingo dute. Ondoren, Luhartz erromeria hasiko da eta kontzertuaren atsedenaldian piztuko dute sua.

Berrizen, hilaren 23an, 21:00etan, Elizondotik abiatuta kalejira egingo dute Zo-Zongó taldeagaz. Ondoren, Berrizburun txorizo dastaketa prestatu dute eta 22:30ean isiotuko dute sua.

Mallabian, Goitaa auzoan, donien atxa jasoko dute 20:30ean, ondoren sua pizteko. Barikuan, 22:00etan, herri-afaria egingo dute eta Aitor Sarriegi eta Beñat Gaztelumendi bertsoetan ibiliko dira. domeka eguerdian ardi txakur erakustaldia egingo dute.

Garain Momoiotioko San Joan ermitaren inguruan donien atxa jasoko dute, 20:00etan; ondoren, sua piztuko dute han inguruan. Barikuan meza egongo da. ■ J.D.

ANAIK, s.a.l.

ONDO PASA AXPEKO JAIETAN!

AROTEGIA ETA TEILATUGINTZA
Martxa Auzoa, z/g
48291 ATXONDO
Tel./Faxa: 94 623 14 97

DURANGALDEA

Baserrietako lapurretei aurre egiteko gomendioak zabaltzen

Baserritarrek "neurriak" hartzearen garrantzia azpimarratu du Ertzaintzak

Durangaldeko baserritarrek, lapurreten aurrean hartu ditzaketen neurriak batzen dituen diptikoa jaso dute egunotan postontzietan. Ertzaintzako iturrien arabera, ekimenaren helburua gune isolatuetao lapurretei aurrea hartzea da. Bertako biztanleek Ertzaintzagaz hartu-eman estutzea da asmoa, patruilaren bat ikustean, "zalantza barik geldiarazi eta beharren edo kezken berri emateko".

"Sarritan baserrietara galderak egitera hurreratzan da jendea, galdu egin direla edo lan bila dabilzala esanez, baina informazio bila ibiltzen dira, bertan edo

Jabea etxean egonagatik lapurretak izan direla ohartarazi du Ertzaintzak

inguruan osteko", diote Ertzaintzatik. Besteak beste, kotxe-matrikulak eta pertsonen deskribapenak gordetzea eta leihoak eta ateak giltzez ondo ixtea gomendatzen dute, nahiz eta etxean egon, edo aldameneko ortuan; "jabeak etxean direla ere, lapurretak izan dira-eta".

Ertzaintzaren esanetan, ekimenaren asmoa ez da "alarma piztea", delitugileek zelan jarduten duten azaltzea baino; herritarrei 112 larrialdietako telefona edo 94 466 93 00 Durangoko Ertzain Etxera deitu dezaketela jakinarazi diete.

Datuak

"EAEko beste herri batzuekin alderatuta, kriminalitate datuak txarrak ez badira ere, hobetu daitezke", azaldu dute. Baserri eta hiriguneetan jasotako datuen arabera, eskualdeko herrietan, orokorrean, delitu kopurua ez da hazi. Iurretan eta Berrizen, baina, lapurretek gora egin dutela eta herri horietan lanean dabilzala adierazi du Ertzaintzak. ■ J.Guenetxea.

LAPURRETA DATUAK:

	2009	2010	2011
DURANGO	40	36	11
IURRETA	7	18	6
ABADIÑO	7	4	4
ELORRIO	5	7	3
BERRIZ	8	7	6
ZALDIBAR	7	7	3
MAÑARIA	0	2	3
IZURTZA	1	2	0
GARAI	3	1	0
ATXONDO	2	3	0
OTXANDIO	0	0	1
MALLABIA	7	2	2

* 2011ko datuak lehenengo lau hilabetei dagozkio.

* Lapurretak ezezik lapurreta saiakerak ere jasota daude, baserrietakoak zein herri gunekoak.

DURANGO

650 pertsonatik gora batuko da bihar Munduko Arrozak jaian

Zubiguneak elkarleen tailerrak hirugarrenez antolatu du kulturarteko jaia



Duela urte bitik indarra hartzen joan da Munduko Arrozak ekimena.

Bihar eguerdian hogeitai baina gehiago gerturatuko dira Ezkurdiplazara, arroza prestatzera. Arroza kultura askotako jakia izanik, kultura arteko jaia izaten da Munduko Arrozak izeneko. Euskal Herriko hainbat herritan egiten da, eta Durangon hirugarren urtez ospatuko dute.

Bazkaritarako 650 lagunek eman dute izena, baina bihar, 14:30 inguruan, edonor hurreratu daiteke Ezkurdira arroza probatzera. Norbanako eta herriko hainbat elkarte ibiliko da sukaldari.

dari. Izan ere, ekimena Zubiguneak Durangoko elkarleen parte-hartze tailerrak antolatzen du, eta bertan mota askotako elkarteak daude. Garapen komunitarioan elkarrekin behar egiteko tailerra da Zubiguneak.

Aldarrikapen eguna

Jai giroa eta kultura aniztasuna izango da nagusi zapatuan, eta baita aldarrikapena ere. Iaz Haitiren aldeko Durangok Haiti Gogoan kanpaina amaitu zuten Munduko Arrozak egunean.

Bihar, krisia eta inmigrazioa lantzen dituzten bideoak ipiniko dituzte. Horrez gainera, lehenengo biderrez bidezko merkataritzako salmenta postua ipiniko dute, eta joko kooperatiboak egongo dira umeentzat. Egun osoan hainbat kultur emanaldi ere egongo dira. ■ A.Ugalde.

Hogeitai baina gehiagok eman dute izena bihar, Ezkurdi arroza prestatzeko

Gaur zabalduko dituzte Tabirako igerilekuak

Iaz baino 13 egun gutxiago egongo dira zabalik "krisi sasoian aurreztu beharra" dagoelako

Tabirako kanpoko igerilekuak gaur zabaldu eta irailaren 4an itxiko dituzte. Iaz baino 13 egun gutxiago egongo dira igerilekuak zabalik. Udal arduradunek adierazi dutenez, "krisi sasoian aurreztu beharra" dagoelako egin dute murrizketa. Irailaren 4an kanpoko igerilekuak zarratuko badituzte ere, abonatuak estalitako igerilekuetara joan ahalko dira irailaren 15era arte.

PSE-EEK kritikatu egin du igerilekuetako denboraldia laburtzea: "Kalitateko zerbitzu publikoa jasotzeko eskubidea dute durangarrek". Hilaren 18ra arte zabaltea proposatu dute.

Hainbat berriztapen egin dituzte igerilekuetan; irisgarritasun araudia betetzeko aldageletan distribuzio berria egin dute, eta taberna eta biblio-igerilekua lekuz aldatu dituzte. ■ A.U.

MALLABIA

Eguenean amaituko du kurtsoa AEK-k, 14 ikaslegaz

Klaseak goizez eta arratsaldean banatuta, ikasleen lan orduetara moldatzea lortu dute

Ikasturtearen balorazio ona egin du Kaltxango AEK euskaltegiak. Lehenengo biderrez, bitan banatu dituzte klaseak, goizez eta arratsaldean; horren helburua erreleboetan behar egiten duten ikasleei malgutasuna eskaintzea da, ahalik eta klaserik gutxien galdu dezaten; hain zuzen ere, 14 ikaslelik ia erdiak erreleboetan lan egite dute: "Erabaki positiboa izan da, eta datorren urtean berdin jarraituko dugu", dio Juanmi Bravo

AEK-ko irakasleak. Datorren egunean amaituko dute kurtsoa. Kultur etxeko teilatua konpontzen dabilzanez, goizeko klasea liburategian emango dute eta arratsaldekoa Zurrotoki gelan.

Gogoratu dutenez, EGA presatatu gura duena edo espezializazioen bat bilatzen duena Ermuko AEKra bideratzen dute: "Mallabian ezin bada, Ermuko AEKn maila gehiago eta arlo askotariakoak daude". ■ J.D.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

gremioen koordinazioa

urutiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoierakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Betikoak
flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

BAUTISTAN BI LAGUNENTZAKO EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARITZEN JARRAITZEN DUGU **OPARIA ZUZENEAN**

1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETAGATIK

Bautistan inoiz ez genizuke ezer oparituko
lehenago geuk probatu barik.
Zure lekuan geu joan gara sasoiko lehenengo itsas bidaiara:
BARTZELONA-TOULON-SARDINIA-BARTZELONA
eta ziurtatu egiten dizugu esperientzia
ZORAGARRIA izan dela
ZATOK ETA FROGATU EGIZU
Jon Ugarte
Bautista altzariak eta dekorazioa


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

IBERO cruceros-en laguntzarekin:



Eguzki sartzea. Sardiniatik irteten.
2011ko apirilaren 2a. 20:00.



Popako haurtzaindegia. Bartzelonatik irteten.
2011ko martxoaren 31. 18:00.

Zurekin ospatu gura dugu gura 40. urteurrena eta harritu egin gura zaitugu.

**EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAKO
BETIDANIK BEREIZTU IZAN GAITUEN ARGITASUNAREKIN.**

www.bautistamuebles.com

 **94 672 77 00**

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

Itsas bidaia kopuru jakin bat amaitu artekok eskaintza. Instalakuntza libreko elektrotresnen erosketak ez da baliagarria eskaintza honetarako

DIURRETA

Zabortegia dela-eta, salaketa jarri dute Goiuriko bizilagunek

2006tik itxita egon ondoren, iazko abenduan Obra Lizentzia eskuratu zuen Leku Baso S.L.-k. Lizentzia hori baliogabeztatzeko eskatzen dute goiuriarrek



Urteetan geldirik egon ostean, duela "bi hile inguru" ekin zioten berriz obrei.

Bosturtean itxita egon ondoren, Goiuriko zabortegian obra lanetan hasi dira berriro. Iurretako Udalak, baldintza guztiak betetzen dituela argudiatuta, obra lizentzia eman zion abenduan. Hori dela-eta, Goiuriako Kofradiak eta bertako bizilagun batek salaketa bana jarri diote Udalari.

Abendu hasieran, udalak baiezkota eman zion Leku Basok zabortegia kudeatzen duen enpresak egindako obra lizentzia

eskaerari. Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, bete beharreko baldintza guztiak betetzen ditu eskaerak. Baldintzak betetzen diren kasuetan, udala baime-na ematera "derrigorturik" dagoe-lanabarmendu du alkateak, "obra

Iñaki Totorikaguena:
"Eskaerak baldintza guztiak betetzen ditu, Udalak onartu baino ezin du egin".

gustuko izan zein ez". 2006an itxi zuten zabortegia, lizentzia barik martxan zebilela-eta. Zabortegia zabaldu aurretik, oster, zabaltze lizentzia eskuratu behar duela azaldu du alkateak. Bere berbetan, gaur egun zabortegian egiten dabilen obrak lizentzia hori lortzeko beharrezkoak dituzten "egokitze lanak" dira. Zabaltze lizentzia lortzeko eskaerari buruz galdetuta, Totorikakez du eperik jarri. "Baldintzak bete arte ez du lizentziarik izango", dio. ■ A.M.

OTXANDIO

Dantzariak afaria egingo dute zapatuan, Urdurik antolatuta

51 urte bete ditu aurten Urduri dantza taldeak. Afariaz gain, poteoa eta dantzaldia egongo dira

Urtero legez, dantzarien afaria egongo da Urduri dantza taldeak antolatuta. Afariaz gainera, arratsalderako egitaraua ere prestatu dute Urdurikoek. Arratsaldean, 19:30ean, poteoa egingo dute, txistulariekin batera. Afaria, ostera, 21:00etan hasiko da. Ainhoa Lasuenen berbetan, 100 bat per-

tsanak hurbilduko dira ekimen-er. Afalostean, berriz, dantzaldia egongo da musika jartzaile batek proposatuko dituen doinuekin.

Dantzarien afariak urteurren ospakizunagaz bat egiten du; aurten, 51 urte bete ditu Urduri dantza taldeak. Lasuenek azaldutakoaren arabera, 125 lagun inguruk osatzen dute Otxandioko dantza taldea. Alde batetik, umeen taldea dago; 70 bat umek osatzen dutena. Bestalde, nagusien bi talde daude; 40 emakumek osatzen dute bat; bestea, 15 gizon-ek osatzen dutena da. ■ A.M.



Urtero legez, dantzarien afaria egingo du Urdurik.

ZALDIBAR

Liburutegia arratsaldeetan itxita, eguenetik aurrera

Zaldibarko Udal Liburutegiak ordutegiak aldatzea erabaki du, uda datorrela-eta. Datorren eguenetik aurrera -ekainak 23-, arratsaldean itxi egingo dute, eta 08:00etatik 15:00etara bakarrik egongo da zabalik. Arduradunek azaldu digutenez, abuztu osoan itxita mantenduko dute.

Horrez gainera, ekaineko bari-ku arratsaldeetan itxita izan dute liburutegia, eta gaur ere hala izan da. Goizeko 09:30etik eguerdiko 14:00etara izan dute zabalik.

Bestalde, bidaien gaineko zikloa atzo ipini zuten martxan liburutegian. Hurrengo kontakizuna udako oporralditik bueltan antolatuko dute. ■ M.O.

MAÑARIA

Elikadura eta kontsumo gaiei buruzko berbaldia

Ekainaren 21ean, udaletxean eskainiko dute 'Alimentación y recursos naturales' berbaldia

Bilboko Kontsumo gelako Unai Achurak eskainiko du ekainaren 21eko berbaldia. *Alimentación y recursos naturales* izenburua dauka hitzaldiak, eta udaletxean da hitzordua, 18:00etan hasita.

Hain oinarritzko eta egunero-ko baina sarritan gutxi zainduta-ko gure kulturaren parte diren elikadurari eta baliabide naturalei buruz jardungo du emailak datorren martitzeneko berbaldian.

Gaurko kontsumo ereduak eragindako "ingurugiro eta gizarte arazoak" murrizteaz jardungo dute, esaterako

Elikaduraren eta janariagaz lotura daukaten beste hainbat gairen inguruan jardungo dute, martitzenean, udaletxean batzen direnek. Elikaduraren historia eta gaur egungo egoeraz arituko dira, esaterako; baita banaketa kate handiek eragindako gizarte arazoez ere, 2008ko elikaduraren mundu mailako krisiaz, nutrizioaz eta janariaren etiketatuari buruz, besteak beste.

Egungo kontsumo ereduak eragindako "ingurugiro eta gizarte arazoak murrizteko" zer irtenbide mahaigaineratu daitezkeen ere aurkeztuko dute ekainaren 21eko berbaldian. ■ I.E.

ATXONDO

Apatako igerilekuak, bihartik aurrera zabalik

Aurten ere hiru hilebetean egongo dira pistinak zabalik. Abonu txartela egiteko aukera dago

Asteburu honetatik aurrera uda giroa igarriko da herrian. Udal igerilekuak bihar zabalduko dituzte, goizeko 11:00etan. Datozen hiru hileotan bertara joateko auke-

Irailaren 18ra arte egongo dira igerilekuak zabalik, astelehenetik barikura, 11:00etatik 20:00etara

ra egongo da, irailaren 18ra arte; orduan zarratuko dute aurtengo uda denboraldia. Igerilekuen ordutegia 11:00etatik 20:00etara-koa izango da.

Igerilekuetarako txartela egiteko informazio guztia eta bete beharreko formularioa udale-txean hartu daitezke.

Atxondoko familientzat, igerilekuetarako bonoak 51 euro balio ditu, 18 urtetik gorako bana-koek, berriz, 28 euro ordaindu beharko dute, eta adin txikikoek 19 euro. Atxondon erroldatuta ez daudenentzako prezioak karu-txoagoak dira. ■ A.U.

Txartela eskuratzeko informazioa eta formularioak udaletxean daude

momotxo
t a b e r n a
plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

Erriike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Nemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

Durangaldean labur

Durango Muruetatorren jaiak ospatuko dituzte

Zapatuan, 11:00etan, jaurtiko dute txupinazoa. Goizez zein arratsalde, umeentzako jolasak eta ludoteka egongo dira. 20:00etan trikipotea egingo dute eta 22:30ean Rex taldeak kontzertua eskainiko du.

Domekan, 10:00etan, bidegorrian zehar bizikleta irteera egingo dute. 13:00etan Txoritxu Alai taldeak dantzak eskainiko ditu. 18:00etatik aurrera, diskofesta eta txokolate-jana prestatu dituzte.

UGTko Damaso Casado, Durango delegatuekin

UGT-Euskadiko idazkari nagusi Damaso Casado Durango izan da, gaur goizean, delegatuen batzarrean parte hartzeko. Batzarrean negoziazio kolektiboaren gaineko dekretu-legea eztabaidatu dute, eta patroiekin negoziazioak apurtu izanaren zergatiak azaldu ditu. UGT sindikatuak Montevideo kalean duen egoitzan izan da delegatuen batzarra.

Nagusiei zuzenduta, irteera Donostiara

Durango Udaleko Adinekoen Sailak ekainaren 24rako nagusiei zuzendutako irteera kulturala antolatu du Donostiara. Besteak beste, San Telmo Museoa bisitatuko dute gida batez. Interesdunek Nagusien Udala Egoitzan (Astarloa kalea, 1-2. solairuan) eman behar dute izena.

Kantzerrari buruzko hitzaldia Durango

Oihana Urraza psikologoak eta Espainiako Minbiziaren Kontrako Elkarteko kideak bularreko minbiziaren inguruko hitzaldia eskainiko du ekainaren 21ean, 18:30ean, Andraguneak Pinondo plazako eraikinean duen egoitzan. Hitzaldirako sarrera doakoa izango da.

ABADIÑO

Babes ofizialeko 54 etxe zotz egin dituzte Gantza-Zelaietan

Eguazten goizean, Zelaietako probalekuan egin zuten Eusko Jaurlaritzaren ekitaldia



Ekitaldia bertatik bertara jarraitu zuen hainbat herritarrek.

Babes ofizialeko 54 etxebizitza zozkatu zituzten eguazten goizean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak Zelaietako probalekuan burutu zuen ekitaldi publikoan.

Gantza Zelaietan eraikiko dituzten etxebizitzak jabetza da, ekainaren 15ean, Jose Luis Navarrok alkateak ere parte hartu zuen ekitaldian zehaztu zutena; 54 etxebizitza zotz egin zituzten.

Udalak helarazitako datuen arabera, 98 eskatzaile abadiñarrek bete dituzte zozketan parte hartu ahal izateko baldintzak.

Zotz-egite ekitaldira bertaratutako ziren etariko batzuek txaloekin erantzun zuten euren izena entzutean; ekitalditik burumakur atera ziren, aldiz, zozketatik hirugarrenez zorterik barik joan zirenak.

Udalaren datuen arabera, 98 eskatzailek bete dituzte parte hartu ahal izateko baldintzak

Gobernu taldeak jakinarazi duenez, babes ofizialeko beste 20 etxebizitza esleitzeko zozketa burutzea dute aurreikusita. Errota Kultur Etxearen eta Pierburg enpresaren artean (lehengo Carbureibar) eraikiko dituzte etxebizitza horiek. Zozketa datozen hiletan egitea aurreikusi du gobernu taldeak. ■ I. Esteban

Alkatetzarako negoziazioei buruzko adierazpenak

Ohar bana bidali dute Independenteei eta Bilduk

Asteon komunikabideetara bidali duen idatzian egotzi dio Abadiñoko Independenteei taldeak Bilduri "neurtzeko modu bi" baliatzea. Elorriko kasuan, Bilduri dagokion zerrenda bozkatuena erres-

petatzea aldarrikatzeko "zalapartat" eragin dutela, eta Abadiñoren kasuan, aldiz, "zerrenda bozkatuena alkatetzakentzeko asmoa" agertu duela Bilduk azpimarratu du Talde Independenteei.

"Argi dago Bildu ez zegoela Abadiñon udal gobernu indartsu bat eratzeke eta herritarrentzako onuragarriak izango diren proiektuak adosteko prest", salatu du Talde Independenteei.

Hedabideetara helarazi duen oharrean, "gure apustua EAJ-PNV-rekin akordioa lortzea izan da", azaldu du Bilduk. Idatzi horretan azaldu dutenez, "EAJ-PNVk akordioa ezinezko egin du eta ez da gai izan gure horren garrantzitsu ikusentz gure uurratsa emateko". ■ I. E.

GARAI

Ekainaren 27an hasiko dituzte udalekuak

19 umek parte hartuko dute udalekuetako aurtengo edizioan; ekintza ugari egingo dituzte

Garaiko Udalak umeentzako udalekuak antolatzeko ohitura hartu du azken urteotan, eta aurten ere ideia berari ekingo diote. Dagoneko amaitu da izena emateko epea, eta, udaleko iturriek aipatu digutenez, 19 umek parte hartuko dute aurtengo aldi honetan.

Hilaren 27an emango diote hasiera udalekuetako egitarauri, eta uztailearen 15era arte iraungo du, azaldu digutenez. Goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara bitartean zehaztu dute ordutegia, eta salbuespenen bat

izatekotan, arratsalde irteeraren bat eratzen bada izango dela jakin eragin dute.

Ekintzak

Ume eta gaztetxoek ez dute asperetzeko astirik edukiko. Egunero hainbat tailer eta jolasetan parte hartzeko aukera izango dute, eta, gainera, kanpora joateko ekimenik ere prestatu dute antolatzaileek. Esate baterako, hondartzara joatea itxaroten dute egun batean eta beste batean Olentzeroren baserrira. ■ M.O.

IZURTZA

Ondarearen Zerrendan sartu dute Arana jauregia

Euskal Kulturaren Ondarearen Zerrendan inskribatu dute 1852an eraikitako Arana jauregia

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu du Kultura Sailak "Arana jauregia Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean monumentu kategorian" inskribatu dutela.

Eusko Jaurlaritzako kultura sailburuak sinatzen duen idatzian, 1852an eraikitako "higiezi-

na babesteko eta udal hirigintza planeamenduan sartzeko" eskaria egiten zaio udalari.

Jabearen ekimena izan zen Arana jauregia eta inguruko lursaila ondare izendatzeko eskatzea. Azken lau urteetan gobernu taldeak begi onez ikusi zuen eraikina babestea, baina lar zeritzon inguruko lursaila ere babesteari, eta alegazioa aurkeztu zuen. Kultura Sailak ez du alegazioa aintzat hartu. Gaia jorratzeko batzarra eskatuko dio gobernu talde berriak Kultura Sailari. ■ I. E.

"Higiezina babesteko" eta "hirigintza planeamenduan sartzeko" eskatzen dio udalari Kultura Sailak

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Baimendutako harategia

Euskal Okela

Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8

946 827 038

48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1

946 812 247

48200 DURANGO

Herriko gudarien kalea, 10 - behea

48200 DURANGO

Tel./Faxa: 94 621 54 04

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Ainara Urrera Jainaga

PODOLOGOIA 1988. Elkaragokidea

BERBAZ>

“Mota guztietako batzarrak egin dira Intxaurren; beti egon dira ateak zabalik”

Duela 25 urte zabaldu zituen lehenengoz ateak Intxaurre elkarteko tabernak. Bihar jai bategaz ospatuko dute.



Jose Mari Bilbao eta Ibon Azueta “Txutxi” •

- Intxaurre elkarteko kideak dira bere sorreratik.
- 200 bazkide baino gehiago dira elkartean.

ahal digute. Ohitu egin gara, baina ez da broma. Herriko tabernen makroprozesuan 150 bat elkarte gaude. Elkarte bakoitza bere abokatuagaz aurkeztu denez, makroprozesua oso makro bihurtu da. Horregatik, jabetzan ez dauden elkar-teak prozesutik kanpora utzi dituzte, eta besteontzat bi urteko epea ipini dute alegazioak ipintzeko. Pilo bat luzatu daiteke, eta bitartean jendea kartzelan dago. Durangar bat ere egon zen hiru urtean kartzelan, eta epaiketaren zain dago orain.

Urte guztian hainbat ekitaldi egin dituzte, baina bihar dute jai egun handa Intxaurren 25. urteurrena ospatzeko. Egun osoko egitaraua antolatu dute, eta 300 lagun inguru batuko dira bazkaritarako. Sorreratik elkarteko kide diren Jose Mari Bilbao eta Ibon Azueta “Txutxi” gaz egon gara.

Zelan gogoratzen duzue Intxaurren sorrera?

Jose Mari Bilbao: 1983an erosi genuen etxea. Zinegotzi ginela batzartzeko leku bat behar genuen, eta udaletxean lekuri ez, antza. Etxe hau ugazabak dohaintzan eman gura izan zion udalari, baina jaustear zegoen, eta udalak ez zuen hartu; balio zuena baino gastu handiagoa zeukala zioten. Udalak erosi ezean geuk erosiko genuela bota nuen. Udalean

farola zela pentsatu zuten. Ez geneukan dirurik, baina inguruko artean dirua batzen hasi eta lortu genuen etxea erosteko lain: 600.000 pezeta.

Gero, obrak egin behar.

JM.B.: Bai, hasi aurretik hesi bat ipini genuen, eta urtebetean egon zen horrela, baina gero berrikuntzekin hasi ginen, teila-tutik hasita. Jende asko ibili zen beharrean eta dirua ipintzen. Elkarte sortu genuen, eta eskriturak bere izenean daude. Baimen denak eta arau guztiak beteta egin genuen dena; inork ezingo du esan legerik bete ez dugunik.

Ibon Azueta: Bai, erosi zela 28 urte izango dira, eta taberna inauguratu zela 25. Zabaldu baino urtebete arinago, Sanfaustoetan txosna moduan zabaldu genuen. Lurra ipini barik zegoen, eta tarima bategaz moldatu ginen.

Sorrera hartan oraingo funtzionamendua zeneukaten buruan?

I.A.: Bai. Hasieran taberna eta txokoa genituen, bata bestearen alboan. Tabernak, baina, indarra hartu zuen, eta txiki geratu zenean txokoa jan zuen. Baina bestela, bai. Lehenago Duran-

“Intxaurre jendea elkartzeko erreferente bihurtu da; lehenago ez zegoen horrelako lekuri”

gon ez zegoen elkartzeko lekuri, eta Intxaurre erreferente bihurtu da. Urteotan denentzat egon dira ateak zabalik.

JM.B.: Mota guztietako batzarrak egin dira hemen. Guk martxan ipini genuenean PCk-eta ez zeukaten lokalik, eta bertan batzarrak egindakoak dira. Auzokideen komunitateak ere batzartuta daude hemen, koa-drilak ere bai... Ondo konpondu izan gara ingurukoekin. Azkenean, mojekin ere bai.

Hasieran arazoren bat izan zenu-ten mojekin?

JM.B.: Ez... musika ipintzen genuela eta kexaren bat egon zen, baina esan nien: “Zuek ere kanpaiak jotzen dituzue goizaldean”; eta... isildu. Baina eurenkin ondo. Beti garbitu izan diegu komentu ingurua gauean zikindu denean, eta ondo kon-

pondu izan gara. Sanfaustoetan garbiketa brigada jartzen genuen, eta egunero, goizetan, batzuk zezenetara joaten ziren eta beste batzuk garbitzera.

I.A.: Egia da, lehenengotan batez ere, herrian zer edo zer txarra pasatzen bazen erreferentzia hau izan dela. Aurpegia hau izan da, eta askotan barra atzeko pertsona. 2000. urte inguruan astero-astero guardia

Asko aldatu da Intxaurre urteotan?

I.A.: Aldatu, ez. Hori bai, jendea berriztu da; jende asko sartu da. Baina ez da ahaztu behar lehenengotatik egon zen jendea eskerrak egin dela hau; hau gaur egun ez da egiten.

JM.B.: Orain ere egingo litzateke. Hauek erdi gazte hauek pentsatzen dute oraingo gazteek ez dutela inplikaziorik, baina nik

“Enbargu egoerara ohitu garela esango genuke, baina ez da broma; jendea kartzelan dago herrikoen auziagatik”

zibilak eta ertzainak etortzen ziren. Jazarpen handia eduki genuen.

Herriko tabernen auzia dela-eta, etxea enbargatuta dago. Zer eragin izan du auzi horrek?

I.A.: Laster bederatzi urte izango da etxea enbargatuta gaude-la; gurea da, baina ez da gurea: kontuak blokeatuta dauzkagu eta txarrena segurtasun falta da. Enbarguak aurrera egiten badu bihar-etzi jabetza kendu egin

pentsatzen dut baietz, guk eduki genuen eta gure aurrekoek ere bai. Guk mundua sortu behar genuela pentsatzen genuen, baina denborak diferenteak dira.

I.A.: Inplikazioa orain, hasierako urte haietan baino txikiagoa da, baina egon badago. Belau-naldi berriak gogoz datoz, eta urteurrena ospatzeko antolaketan ere eurak ibili dira lanean buru-belarri. ■ A.Ugalde

“Udaletxeak ez zuen etxea erosi gura izan, jaustear zegoelako”



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean
menu berezia 16 euro, 18e/ardoa,
20e/kriantza. Afariak egunero
astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erreategia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko
11 euro



Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriak. Eguneko
menuak. Asteburuko menu bereziak.
Karta. Ospakizunetarako menuak:
ezkontzak, enpresa bazkariak,...
Aurrekontu guztietarako menuak.

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Eskerrak lagundu diguzuenoi

Inoiz ez nuen pentsatu izango Durangora bidea hain luzea zenik. Burua, zurrunbiloan, zoratu beharrean, eta bihotza... itota. Denborari bultzaka, Atxartera heldu nintzen, aitaren bila. Hiru egun, arraroak eta amaigabeak, igaro genituen esperantza eta atsekabea nahasian, baina, azkenean zoritxarrak ziztada eman eta han utzi gintuen, abandonatuak baina ez bakarririk.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gau eta egun, goiz eta arratsalde, indarrak agortu arte behin eta berriro haitz artera ateratzinenei, eten gabe eta etsi gabe, bai mendian bai Atxarteren izanda, aita aurkitzeari ekin zeniotenei. Eskerrak eta besarkada bana hartu, erakutsi zenuten adoreagatik. Eskerrak bihotz-bihotzez denoi, ezbarrean eman diguzuen laguntzagatik.

Maider eta Olaya

Abadiñoko Bildu, alkatearen hautagaitzari buruz

Maiatzaren 22an Bildu Abadiñok lortutako 1.516 bozkak historikoak izan dira. Balorazio guztiz positiboa egin ostean, hauteskunde egunean emandako babes hori eskertzen dugu, eta

arduraz jokatu dugu izandako babes sozial horri eskainitako defendatzeko.

Abadiñoko Udaleri begira, gure asmoa udal gobernu sendo bat sortzea izan da, udalari egonkortasuna emateko. Abadiñoko Independenteekin ez genuen akordio bat posible ikusten, alde batetik, euren azken urteetako gestio maila eta oposizioarekiko izandako jarrera baztertzaila ikusita, eta, bestetik, datozen urteetarako dituzten proiektuak aztertuta.

Horregatik eta betiere gobernu sendo bat osatzeko intenzioarekin, gure apustua EAJ-PNVrekin akordioa lortzea izan da. Guk EAJ-PNVri proposamena luzatu diogu, eta akordioa posible ikusi dugu. EAJ-PNVk akordioa ezinezko egin du eta ez da gai izan guk horren garrantzitsu ikusten genuen urrats hori emateko.

Udalbatzan zinegotziek egindako bozketaren ostean, Abadiñoko Independenteen hautagaitzak sei bozka jazo ditu, Bildu Abadiñoko hautagaitzak bost eta beste bi abstentzio egon dira. Era horretan EAJ-PNVk, bere bi zinegotzien abstentziari esker, Abadiñoko Independenteei gobernu jarraitzea ahalbidetu du.

Bildu Abadiñok gaur egungo kontestu politikoan, herriari eskainitako herri programa defendatuko du, kasu honetan oposiziotik ilusio eta kemen guztiarekin.

Abadiñoko Bildu



Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia

Jose Luis Zubillaga
EB

Ezker Batuaren hautesporrota

Azken udal eta foru hauteskundeetan Ezker Batuak jasan duen hautesporrota gutxi gorabehera aurreikusi zitekeen kontua zen, funtsezko bi arrazoiengatik.

Lehenik, Bilduren sarrera indartsua, eta, bigarrenik, gure erakundeak azken bi urteetan bizi duen barne krisia. Krisi horrek gure zale eta boto-emaldeen sinesgarritasuna txikitzen digu, ez baitugu jakin kohesioan oinarritutako proiektu politiko erakargarri bat helarazten.

Bilduk oso emaitza onak izan ditu hauteskunde hauetan, koalizioko buruzagiek ere espero ez zituztenak, eta EBk zoriondu egin gura ditu izan duten arrakastagatik. Ea emaitza hauek ETaren biolentziaren amaiera dakarten epe laburrean, Bilduk berak defendatzen duen moduan eta euskal herritarren gehiengoak eskatzen duen moduan.

Ezker Batuak emaitza txarra izan du udal eta foru hauteskundeetan, beste arrazoi batzuen artean, azken bi urteetan eman dugun zatiketa irudiatik. Badakigu gure erakundearen zati garrantzitsu batek uste duela koordinatzaile orokorrak dimisioa eman beharko lukeela hauteskunde hauen ondoren, bere aurrekoak 2009an antzeko egoera batean egin zuen bezalaxe.

Ezker Batuan sinesten dugu, bere lorpen eta akatsen, eta Euskadin beharrezko den indarra dela uste dugu. Ezkerra da berme bakarra gizar-te justuagoa, jasangarriagoa eta gizatiarragoa eraiki nahi badugu. Herritarrek gure sigletan berriz sinetsi dezaten pausuak eman behar ditugu etorkizunean, progresisten ilusioa berreskuratzeko eta mugimendu politiko antikapitalista, errepublikazalea eta federala osatzeko.

* Erredakzioan itzulia



Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa



anboto
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
 2011ko ekainaren 17a - 10. urtea - 420 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

ARTEA > ELKARRIZKETA



“Komunikatiboenak iruditzen zaizkidan lanak ekarri ditut”

Durangarra da **Jon Gorroño** gaztea, eta Bartzelonan diseinu grafikoa ikasitakoa. Durangoko alde zaharreko Art Leku marrazketa eskolaren sarreran eskegi du ekainean bere margolanen bilduma bat. Joko bisual bat da erakusketa horretan ikusleoi proposatzen diguna: irudimenagaz jolas egitea, esanahaiak eta formak sortzea

Noiz sorturikoak dira lanok?
Denbora daramat marrazten, beti eduki dut afizioa, baina denbora luze batean halako lanik egin barik egon naiz. Erakusketarako sorturikoak dira koadroetako bi, eta lehenagoko beste zenbait ere pres-tatu ditut publikoari erakusteko.

Erakusketa jarri duzun areto honetan bertan jasotzen dituzu marrazketa klaseak ere.
Hile bi inguru daramat Art Leku-ra etortzen; denbora libre gehiagoneukan aspaldian, eta marrazketan jarduteko, afizioa landu eta zerbait sortzeko aprobetxatu gura izan dut denbora.

Lanbidez, baina, diseinatzaile grafikoa zara...
Gehienbat halako lanetan jardun izan dut. Marrazketa gehiago da

“Beti eduki dut marrazteko ohitura, baina azkenaldian denbora neraman halako lanik osatu barik”

afizioa, norbere gustua bilatzeko modua. Nire kasuan, lanak eta afizioak badaukate antzik: biek komunikatzen dute.

Sortzeko prozesuan dago, behar-bada, aldea...
Ez pentsatu asko aldatzen denik. Aldatzen dena, bezero bat edukitzea edo zeuretzako sortzea da.

“Esperientziak, ametsak, proiektuak... komunikatzeko bidea da niretzat sorkuntza”

Egia da horrek baldintzatu egiten zaituela: diseinuan jardutean produktuen ezaugarriak azpimarratzea da helburua; artea, aldiz, libreagoa da, muga bakoa.

Zerk lotzen ditu erakusketakoak?
Azken urteetan batu ditudan lanak dira, komunikatiboenak iruditu zaizkidanak. Denak koadro kon-

kretuak dira; gai bat daukatenak eta mezu bat helarazten saiatzen direnak dira guztiak.

Zer ideia edo helburuk bultzatuta sortzen duzu?

Niretzat, markatu nauten bizitzako esperientziak, hausnarketak, ametsak, proiektuak eta sentimenduak komunikatzeko, islatzeko, bide bat da sorkuntza.

“Marrazketa afizioa da niretzat, norbere gustua bilatzeko modua”

Erakusketarako batu dituzun koadroetako askotan giza figura da elementu nagusia.

Bai. Esango nuke giza figuren katurizazioak direla koadroetakoak; bakoitzaren ezaugarriak puzturik agertzen dituzten giza figurak dira koadroetakoak.

Zuri-beltzeko koadroetan edo pinturetan teknika desberdinak baliatzen dituzula ematen du.

Batzuetan garaia araberak estetikak bat gurago izaten duzu. Kasu honetan, zuri-beltzeko lanak solemneagoak eta soilagoak dira, baina, aldi berean, adierazkortasun handiagoa daukate.

Hustasunaren ideiaz jokatzeko duzu zure lanetan?

Beltzaren eta zuriaren arteko jokoa da hori, bai. Zuriak beltzak beste adierazten du koadroetan. Zuria ere marrazkia da. Gehienetan, ikusten dugunari, bolumenari, ipintzen diogu presentzia, baina materia existitzen da hutsunea existitzen delako. Joko bisual bat da proposatzen dudana: formak eta esanahiak hutsetik sortzen dira, poesia egiten ditzunean legez. Laino bati begiratuta elefante bat ikusi dezakezun modu berean, koadroak begiratzean ere, forma abstraktu bat zerbait konkretua bilakatzen dugu. ■ I.E.

Eskura dauzkan baliabideekin edertasuna adierazteko era

Benigniren eta Sarrionandiarren sorkuntzari buruzko gogoe-tak hartu ditu elkarrizketan zehar Gorroño ahotsan; barneko konpartitzeko modua du marrazketa, eta *El tigre y la nieve* filmeko umeak legez, edertasuna adierazteko daukan era.

Erakusketaren inaugurazioan egin zuten moduan, koadroak ikusle bakoitzari zer iradokitzen dion jakitea oso gus-tuko du Jon Gorroño.

Koadroen esanahiei buruz gabiltzala, “hau jolas bat da, hau ez da trascendentea”, diosku Gorroño. Zailtasuna du hau: “Ezelako kezkarik barik, eta libre jarduteko aukera”.

Gauza txikiei eta euren edertasunari erreparatzeko “zoom egiteko” modua du sorkuntza. Horiek irudikatze-ko, “eskura” dituen materialak eta teknikak baliatzen dituela kon-tatu digu egileak.



DANTZA > JAIALDIA

Jai giroa, musika eta dantza uztartuz, AIKO Dantzazale Eguna Durangon

Sabin Bikandik konposatu dituen kankak biltzen dituen 'Bikaña' diskoaren aurkezpen-erromeria egingo dute

Ekainaren 18an, Plateruena eta Landako erakustazokaren inguruan burutuko dute AIKO taldeak antolatzen duen Dantzaldi Ibiltariak saioen ikasturte amaierako hitzordua. Dantza emana naldiak, disko baten aurkezpena eta herri-bazkaria egingo dituzte, besteak beste, bihar.

Ikasturte guztian zehar Plateruenean elkartu diren dantzazaleak batuko dira ekainaren 18rako antolatu duten dantza eta musika egitarauagaz gozatzera. Esandako moduan, gainera, AIKO taldearen zazpigarrena den *Bikaña* izeneko diskoaren aurkez-

pena egingo dute biharko Durangoko hitzorduan. Egileen berbetan, gaita eta dultzainagaz jotzeko dantza errepertorioa zabalitzeko helburuz AIKO taldeko Santi Bikandi musikariak konposatu dituen lanak graba-

AIKOn saioetan parte hartu dutenei zein jaiagaz bat egin gura duenari egin diote gonbita

tu dituzte disko horretan; zortzikoak, jauziak, habanerak, tangoak zein txotisak jaso dituzte. Diskoaren "aurkezpen-erromeria" egingo dute, beraz, Durangon, bihar 16:00etan hasita.

AIKOn ikastaroetan parte hartu dutenei zein gerturatu eta jaiagaz bat egin gura duten guztiei zabalik daude biharko ekitaldiak. "Euskal folklorea maite dutenen agendako hitzordua eta antzinako erromerien zaporea jasotzen duen jai aparta" izango dela biharkoa diote antolatzaileek.

Jaia amaitzeko, dantza gehiagorako gogotsu daudenek Plateruenean izango dute aukera, 19:30ean. ■ I.E.



EGITARAUA

14:00etan

Herri-bazkaria, Landako erakustazokan

16:00etan

AIKOn *Bikaña* disko berriaren aurkezpen-erromeria, eta ondoren AIKO taldeagaz dantzaldia

19:30ean

Tradizio guatekea, Plateruenean

ARGAZKIGINTZA > TOPAKETA

Datozen egunetako I. Begira argazki topaketaren egitarauaren barneko hitzordua da ekainaren 23ra arte Durangoko Museoan ikusgai dagoen erakusketa eta ekainaren 23an bertan, 19:00etan hasita, Smoke Collective taldearen inguruan Guaus argazkilariak eskainiko duen hitzaldia.

Durangoko Museoan La Bleda herriko eguneroko bizitzaren inguruko *Arrelat* izeneko erakusketa jarri duen Roger Guaus tarteke den zazpi argazkilarien taldea da Smoke Collective izeneko, hainbat herrialde-tako argazkilariak biltzen dituen. "Irudiek daukaten indarrean sinesten" duten argazkilarien taldea da, Smoke Collective osatzen dutenek esaten dutenez. Taldea eratu zutenetik Europako eta Ipar Ameriketako hainbat hiritan burutu dituzte erakusketak, eta kolektiboaren inguruan jardungo du Guaus ekainaren 23ko Durangoko Begira jaialdiaren barneko berbaldian.

Smoke Collective-n eta Roger Guaus-en lana ezagutzeko era

Erakusketa eta berbaldia, Durangoko Begira argazki topaketaren hitzordua

Bitartean, datorren egunera arte, Guaus kataluniarrak bere eguneroko bizimodua erretratatzeko lau urtean zehar eginitako aldamenekoa lako argazkien bilduma dugu, Begira jaialdiak ekarrita, Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai. ■ I.E.

Ekainaren 23an, 19:00etan, Roger Guaus argazkilariak eskainiko du berbaldia



GEURE DURANGALDEA



Jon Irazabal
Gerediagako kidea

Harri zaharrekin bide berriak...

Urte asko pasatu dira Urkiolako abadeen ekimenaren ondorioz, Santa Apolonia ermitarako galtzada konpondu zutenean Munitibar kazetariak "harri zaharrekin bide berria egin dute" idatzi zutenetik. Eta jakin barik, urte askotako lanari izenburua ipini zion.

Urkiola harri zaharrekin eraikitako guneaz. 1970eko hamarkadan Urkiola zaintzen duten bi Antonioek, zaharrrak eta berriak, garai berrietarako egokitzeko beharrikusizuten: mendeetan egindako ibilbidean, elizak berak eta gizarteak ere egin zuen antzera, pausu berria emateko ordua izan zen.

Orduan etorri ziren Urkiolara Joseba, Jesus, Luis, Bittor, Manuel, Balen... eta talde osoa. Urkiolako harri zaharrekin bide berria egiten hasi ziren, elkarlanean. Ez ziren gelditu Santutegi barruan otoitz egiten. Ez ziren sarrerako arkupeetan gelditu zinopariaketa erromesakitaroten. Urkiola osoa egin zuten euren bizileku. Naturak sortutakoa eta pertsonen eraikitakoa bateratuz. Eta hamarkada luzeetan lan isilean hemen egon dira, eta egoten jarraitzen dute. Batzuetan zuzen, beste batzuetan, ekinean dabilenari gertatzen zaion bezala, erratuz. Baina beti bide zuzenera bueltatzeko ahalginean huts egin barik.

Hemen ditugu emaitzak. Santutegi barruan zein kanpoan. Eta leku bizibizia da, gainera. Izango zuten ziurrenik egun beltzik, baina, emaitzak ikusita, emandakoa, sortutakoa, landatutakoa eta emaldutakoa oparoa izan dela ez daukat zalantzarik. Eta hori den hori, gizon eta emakume talde baten lan isilaren ondorioa izan da. Talde horri, gizon eta emakume horiei guztiei, Urkiola bizi mantentzen horrenbeste lan isil egin duten guztiei, gaur gure artean hemen daudenei zein joandakoei, bihotz bihotzez, Gerediaga elkartearen izenean, eskerrik asko!

* *Gerediaga Elkartearen izenean Nerea Mujikak, ekainaren 12an, Urkiolako komunitatearen omenez irakurritako testua da hau.*

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



Ekainak 17 23:30etan
VILLA GOMBARO Inc. (Groov-UK)
GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 10-12e



Ekainak 17 14:00etatik aurrera
DANTZALDI IBILTARI EGUNA
TXAKOLINA, BAZKARIA, BIKANAREN
AURKEZPENA, DANTZALDIA,
PLATERUENAN DANTZAN



Ekainak 25 22:30ean
POLIPUTOS
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ANOMALIA MAGNETICA



Markeliñe
Antzerki Taldea

Ekainak 24 • 22:00
Ezkurdi plazan
(teuria egin ezkerre Andra Maria elizpenean)

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda

artekalea 14.
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

EGITARAUA > MUSIKA, ANTZERKIA...

Markeliñeren lan berriagaz ekingo diote Uda Kalean Bizi programazioari Durangon

Ekainaren 24tik uztailaren 23ra, hamar ikuskizun aterako ditu San Agustindik kalera Uda Kalean Bizi kultur egitarauak



Duela 27 urte Zornotzan Markeliñe antzerki taldea sortu zuten Joserra Martinez eta Iñaki Egiluz gonbidatu dituzte Uda Kalean Bizi egitarauaren aurkezpenera. Durangon *Anomalía magnética* obra berria eskainiko duen taldeko kideekin batera, aurkezpenean izan dira Mari Jose Balier zinegotzia eta Arantza Arrazola Durangoko kulturgune-ko kudeatzailea.

Aurten hamabigarrenez antolatutako programazioa zabaltze-

Eszena komikoak eta larriagoak ere uztartzen ditu Markeliñeren lanak

Udazkenetik udaberrira San Agustín bete duten ikuskizunak kalera

ko Markeliñe antzerki taldeak dakarren ikuskizuna “poetikoa, bisuala, dibertigarria eta zirikatzailea” dela azaldu digute Markeliñeko partaideek eurek.

“Naturagaz lotzen gaituzten loturak galtzea dakarren sistema honi autopsia egin eta hainbat galdera planteatzen ditugu”, azaldu du aurkezpenean Egiluzek. *Anomalía magnética* honetan ere, ikusleek ezagun eta hain gogoko duten Markeliñeren “ikuskizunaren alderdi plastikoaren eta argia-

EGITARAUA

Ekainak 24, 22:00
Markeliñe-ren *Anomalía Magnética*, Ezkurdin

Uztailak 1, 21:00
Ulannah taldearen folk musika, Tabiran

Uztailak 4, 20:00
Ganso & Cía-ren *Mediopelo*, udaletxeko plazan

Uztailak 7, 20:00
Tiziana Tagliani-ren kontzertua, Kurutzesantu museoa

Uztailak 9, 20:00
Tanar taldearen *Noche de tangos*, Ezkurdin

Uztailak 12, 20:00
Silvia Palumbo kantautorea, Museoko lorategian

Uztailak 16, 19:00
Gorakadaren *Jim altxorraren uhartean*, udaletxeko plazan

Uztailak 21, 21:00
Pere Hostaren *Tal como soy*, Museoko lorategian

Uztailak 23, 12:00/13:30
Pere Hostaren *Postal Express*, kalerik kale

Uztailak 23, 22:00
Ensemble Krida Budaya eta Krisitin Dantza Taldea, Nazioarteko jaialdian, Andra Marian

arte Durangoko beste hainbat espazio beteko ditu kultur eskaintzak. Balier zinegotziak dioenez, “udazken, negu eta udaberrian San Agustín barrualdean izaten den eskaintza kalera ateratzea, kalea kultur topagune bilakatzea” da programazioaren helburua.

Durangoko kaleko bost gunetan izango dira Uda Kalean Bizi jaialdiaren ondorengo bederatzi emanaldiak ere, eta aurten, lehenengoz, Kurutzesantu museoko lorategian ere izango da egitarau honen barruko emanaldi bat: Kurutzesantu museoaren lorategian eskainiko du Tiziana Tagliani musikari italiarrak Arantza Arrazolak “arpa kontzertu intimu” legez aurkeztu duena.

Durungaldeko hainbat sortzailearen azkeneko lanen erakusleiho

Herriko bost gunetara zabalduko dute datozen asteetan programazioa

San Agustingo kudeatzaileak azpimarratu duenez, “bertako sortzaileen azkeneko lanak” biltzen ditu Uda Kalean Bizi egitarauak. Datozen asteetan, kalitateko musika eta antzerkia haizetara eta doan izango dute herritarrek aukeran: Durangoko Ulannah musika taldeak, eta Gorakada eta Ganso & Cía antzerki taldeak eskainiko dituzten euren lanak. ■ I.E.

MUSIKA > SARIA

Aurretik Durangoko Plateruenean eta Bilboko Euskalduna jauregian burutu zituzten saioetan epaimahaiaren laudorioak jasota joan ziren Xaramel taldeko Durangoko neska kantariak joan zen zapatuan Lapurdin antolatutako Haur Kantari txapelketaren Euskal Herriko finalera.

Nafarroa, Gipuzkoa, Baxe-Nafarroa, Araba, Bizkaia, Lapurdi eta Zuberoako haur eta gazte-txoek hartu zuten Euskal Herriko Haur Kantari txapelketaren finalean parte. Bilbon legez, Lapurdin ere Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* kantatu zuten Durangoko Xaramel taldekoek; pianoak lagunduta jardun zuten.

Epaimahaiak Euskal Herriko Txapelketaren bigarren saria eman zien Durangoko zortzi nesko, eta kantua bigarrenez eskaintzeko eskaria egin zieten, gainera: parte hartu zuten 27 taldeek elkarrekin kantatu zuten *Xalbadorren heriotzean* ekitaldiaren amaieran, Leteri omenaldia egiteko.

Joan zen zapatuko Hazparneko saioan Bostekoa talde lapurtarrak jaso zuen sari nagusia: djembe, arrabita eta gitarrak lagunduta, *Ametsetan* kanta eskaini zuten 12tik 15 urtera bitarteko kantariak.

Gaztetxoaren artean kanturako ohitura eta gustua errotzeko helburuagaz, Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatzen duen txapelketaren finalean Euskal Herriko zazpi herrialdeetako 27 parte-hartzailek kantatu zuten; sei eta hamaika urte arteko dozena bat parte-hartzaile izan ziren, eta 12 eta 15 arteko hamabost.

Zazpi herrialdeetako talde, bakarlari eta bikoteek kantatu zuten

Iaz ere txapelketa honetan jardun zuten nesken emanaldiaren arrakastak eta, batez ere, kantugazko Xaramelgoek duten zale-tasunak bultzatuta, datorren ikasturtean gaztetxo kantuzaleen talde gehiago sortzeko asmoa agertu du Durangoko Orfeoia. Roberto Palacios Orfeoiko kideak dioenez, sariei eurei baino inportantzia handiagoa ematen diote neskak kantatzeko batzeari. ■ I.E.

Kanta bigarrenez eskaintzeko eskaria egin zien epaimahaiak

Bigarren saria eman diote Xarameli, ‘Xalbadorren heriotzean’ kantagatik

Zapatuan Hazparneko Mendebala aretoan burutu zuten Euskal Herriko Haur Kantari Txapelkeraren finalean kantatu eta bigarren saria jaso zuen Durangoko Xaramel taldeak



OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

ODONTOLOGIA




B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

*Erditze aurreko eta ostekoak, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...*

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kriopodia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Ansietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728



HIRU FISIOTERAPIA

astelenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

**HEMEN AGERTU
GURA BADOZU,
DEITU:**

94 621 79 02



KIROLAK >

“Nagusien taldea sendotzeko, oinarria indartzetik hasi behar da”



20 urtean jokalaria izan ostean, entrenatzaile titulua ateratzeari ekingo dio orain Igarzak.

Asier Igarza elorriarrak ia bizi osoa darama ERTri lotuta; 33 urte dauzka, eta azkeneko 20ak eman ditu bertan jokatzeko. Jokalari legez, azken izan du aurtengoa. ERTren 30. urteurrenari buruz berbaz jardun dugu.

Zein da Elorrio Rugby Taldearen jatorria?

Elorrioko jai batzuetan sortu zen; Buskantz taldeari bururatu zitzaion errugbi talde bat sortzea. Beste lagun talde batzuetan jendea bilatzeari ekin zioten. Elorriar batzuk Arrasaten egon ziren jokatzeko, eta eurekin batera taldea sortu zuten. Lehenengo partida “Udaberriko Kopa” batean jokatu zen, eta ordutik 30 urte pasatu dira.

Urteotan asko aldatu da taldea?

Bai. 30 urteotan denetarik eduki dugu. Nagusiak, neskak, kadetak, gazte mailakoak... Urte batzuetan talde guztiak izan ditugu, eta beste batzuetan, zoritxarrez, senior eta umeak bakarrik. Pena da baina, adibidez, gaur egun ez daukagu nesken talderik; hainbat urtean egon ziren, dezente urtean, uste dut sei bat urte izan zirela, baina, zoritxarrez 2002an desagertu egin zen. Neska horietako lau-bostek Euskal Selekzioagaz jokatu zuten; baita estatukoarekin ere. Ea

“Durangokoekin eta Arrasatekoekin pikea dugu, baina pike sanoa”

“30 urteotan 450 jokalaria pasatu dira ERTtik, gehienbat elorriarrak”

lehenengo mailan nago. Gazteen ahalik eta ekarpen handiena egin nahi diegu; horrez gainera, hainbat ikuspuntu eskaini nahi dizkiegu.

30 urte asko dira, momentu onak eta txarrak bizi izango zenituzten..

Guretzat momentu txarrena luturen heriotza izan zen. Momenturik onenak, oster, herria gurgaz irauli izan denetan bizi izan ditugu; errugbi egunetan jendea beti dago laguntzeko prest. Urte batean, jaietako txupina ere bota genuen; guretzako ohore handia izan zen.

“30 urteotan 450 jokalaria pasatu dira ERTtik, gehienbat elorriarrak”

Zelako harremana daukazue DRTekin?

Beterano arteko partiduan ikusi zen moduan, hartu-eman ona daukagu. Pikea dago, baina hartu-eman ona da; Arrasate edo DRTgaz dugun pike hori osasuntsua da, gainera.

Aurrera begira, zer asmo duzue?

Lehenengo, urteurren ekitaldia ahalik eta arrakastasuna izan dadin saiatuko gara; orain arteko ekimenek harrera ona izan dute. Aurrerantzean, harrobia lantzen saiatuko gara, gehienbat. Nagusien taldeak hazi nahi badu, oinarri sendoak izan behar ditu. Bestalde, jokalaria hezten, edo hobetzen, saiatuko gara, fisikoki zein teknikoki. Ez diogu uko egingo gure izaerari, baina, jokalaria moduan hobetzen saiatuko gara. ■ A.M.

Elorrioren Aerobithona egiteko aukera eskainiko dute

Datozen domeka bietan, ekainaren 19an eta 26an, Aerobithon deritzon kirola praktikatzeako aukera egongo da Elorrioren. Elorrioko plazako frontoian izango dira ekitaldiak, arratsaldeko 18:30ean. Antolatzaileen berbetan, adin guztietako pertsonentzat da gomendagarria ekimena; hori bai, jantzi erosoak eramateko aholkatu dute. Antolatzaileek aurreratutakoaren arabera, begirale espezializatuak egongo dira parte-hartzaileei laguntzeko. Informazio gehiagorako, deitu 946 032 032 zenbakira edo idatzi iturri@elorrio.net helbidera. ■ A.M.

Monstertruck ikuskizuna Abadiñon

Autoak eta muturreko kirolak gustuko dituztenek zita dute asteburuan Abadiñon. Estatu osoan zehar egiten dabilzan bira baten baitan, Monstertruck ikuskizuna egongo da ikusgai Abadiñon; hain zuzen ere, 90 minutuko ikuskizunak dituzte programaturik. Ordu eta erdian zehar, kamioi erraldoien ikuskizunaz gozatu ahal dute Eroskiko aparkalekura hurbiltzen direnek. Guztira, hiru emanaldi eskainiko dituzte: lehena zapatuan izango da, 20:00etan; beste biak, oster, domekan izango dira, 12:30ean eta 20:00etan. Sarrerak bertan egongo den txarteldegian erosi ahal dira, 11:00tik aurrera. ■ A.M.

Garaiko triatloirako izena emateko aukera

Uztailaren 3an Garaiko lehenengo triatloia jokatuko dute. Bertan parte hartzeko izena emateko epea hasita dago jada; 35 euro ordaindu behar dute proban parte hartzeko.

Proba euskal triatloi zirkuiturako puntuagarria izango da. Saturrarango hondartzan 2 km igeri egin ondoren, Garaiko bizikletan abiatuko dira parte-hartzaileak. Proba amaitzeko, Garaiko errepideetan zehar 21 kilometroko ibilbidea arineketan egingo dute kirolariak. Probari buruzko informazio gehiago www.garaik.com helbideran jaso daiteke. ■ A.M.

> Bideoa: www.anboto.org

ELORRIO RUGBY TALDEAREN 30. URTEURREN JAIA (larunbata, 18)

15:30ean
Errugbi-tag txapelketa mixtoa

21:00etan
Afari herrikoia

22:30ean
Berbena Erlaxi taldeagaz

23:00etan
Suzko zezenak

etorkizunean nesken taldea berreskuratzeko aukerarik bada goen.

Gaur egun zenbat talde dituzue?

Senior talde bat daukagu, 30 fitxagaz. Umeen taldea ere bai; horrez gainera, gazte bat dugu DRTn jokatzeko. Eta amaitzeko, eskolarrak ere baditugu; baina federatu bakoak dira. Guztira, 450 jokalaria inguru pasatu dira hiru hamarkada hauetan.

Urteotan Elorrio izan da zuen harrobia..

Bai, gehienbat Elorrioko jendea aritu gara jokatzeko. Urte batzuk bereziki onak izan ditugu; urte batean, junior taldea estatu mailan jokatzeko ibili zen. Elorrio txikia da, eta lan asko egin behar da jendea ateratzeko; gaur egun 14-16 urte bitartekoekin hutsune bat daukagu, eta datorren urteari begira hutsune hori betetzeko beharrean gabilta. Harrobia landu nahi dugu, kadeteak, gazteak... ondoren seniorrerako jauzia bermatzeko.

Osantsu al dago eskualdeko harrobia?

Bai; horretarako lanean gabilta, gainera. Bai Durangon bai Elorrioren, eskoletan lan egiten gabilta. Bestalde, jendea formatzen ere bagabilta; ni, pertsonalki, IRB titulua ateratzeko

III. Berasaluze Txapelketa hasiko da astelehenean

Txapelketak bi fase izango ditu. Ligaxka –lehenengo fasea– uztaila arte luzatuko da. Irailean jokatu dira bigarren faseko partidua



Berasaluze VIII.a, Calleja, Aretio, Apraiz eta Ibai Zabala txapelketaren aurkezpean.

Hirugarrenez, Pablo Berasaluzeren omenezko txapelketa antolatu du lurretako Olaburu pilota eskolak. Astelehenean, hilaren 20an, hasiko dira partidak. Valen Calleja Olaburuko kideak aurreratu duenez, aurtengo nobedade nagusiak iraupenagaz izango du zerikusia. "Aurtengo txapelketa laburragoa izango da, baina kalitate handiago izango du". Kadete eta gazte mailako "Euskadiko eta Errioxako pilotari onenetakoek" hartuko dute parte txapelketan; besteak beste, Sagastibeltza, Alduntzi eta Iribarrenek parte hartuko dute.

Astelehenean hasi eta uztailera arte iraungo du ligaxkak. Hain zuzen ere, Bereinkua-Murga eta Aranguren-Garcia bikoteek emango diote hasiera txapelketari. Horien ondoren, Egiguren-Diez eta Dario-Urbe bikoteek jokatu dute partida. Ligaxkako 16 pilotariak egingo dute aurrera txapelketan. Abuztuko atsedendialdiaren ondoren,

irailean, bigarren faseko partidak jokatu dituzte; lehenengo final-laurdenetakoak jokatu dituzte, eta gero finalerdien txanda izango da.

Txapelketako finala lurretako jaietan ospatu ohi den profesionalen arteko partidaren egun

Txapelketak bi fase izango ditu. Finala Sanmigeletan jokatu dute

Uztailaren 2an lurretako eta Leitzako pilota eskolen arteko desafioa jokatu dute

berean jokatu du. Asmoa profesionalen partidaren aurretik jokatea da. Hain zuzen ere, Callejak partidu hori jokatu dutenen izenak aurreratu zituen; "azken orduko aldaketarik" ez bada, Berasaluze VIII.ak, Alexis Apraizek, Ibai Zabalak eta Mikel Urrutiak jokatu dute Sanmigeletako norgehiagoka.

lurreta-Leitza desafioa

Bestalde, uztailaren 2an, lurretako eta Leitzako pilota eskolen arteko "desafioa" ospatuko dela aurreratu zuten prentsurrekoan. Callejaren berbetan, "lurretako pilota momentu gozoan" aurkitzen da, bai pilotari kopuruegatik bai horiek lortu dituzten emaitzengatik. Hori dela-eta, "interesgarria" deritzo kanpora irteteari. Orain arte, Lizarra, Burlata eta Getaria lako herrietan lehiatu dira, eta jokalarien erantzuna "ona" izan ei da. Partiduak arratsaldeko 18:30ean hasiko dira. ■ A.M.

Iker Saenz De La Cuesta
•Areto Futbol entrenatzailea



Porrusalda

Bukatu dira ia txapelketa guztiak, eta denboraldiaren balantzea eta datorren denboraldiaren planifikazioa egiteko ordua heldu da. Euskal taldeentzat ez da urte oparoa izan; Nazional A mailan kriston sarraskia gertatu da, jaitsiera askogaz, horrek dituen ondorioekin. Berri on bakarra izan dugu: Ribera Navarra taldea maila nagusira igo da. Orain, datorren urtean non jokatu dugun pentsatu behar dugu. Federazioetik Nazional A mailan egindako aldaketen ondorioz, talde askok ez dakite noraino joan beharko diren jokatzeko, ezta nahikoa aurrekontu duten ere. Gainera, arautegia bete eta Lehenasunezko mailatik gora jokatzeko diru asko beharko da. Jadanik badakigu Nazional B-ko La Bellota eta Euskalduna taldeak desagertuko direla, Jarrilleros kolokan dagoela eta Aurrera de Vitoria Legutiano taldearen kargu geratuko dela. Beste talde askoren etorkizuna ikuskizun dago; batzuk federazioetik informazio gehiago jasotzeko zain daude. Ia ziur esan dezakegu Nazional B mailan Sasikoak, Elorriok eta Mallabiak (entrenatzailea lortzen badu) jokatu dutela, eta Euskal Ligan, beharbada, duda nagusia Kurutziagak egingo duena da (mantendu edo uko egin). Argi dagoena da horrela ezin dela jarraitu, eta Federazioetik argitu behar ditu hartutako neurriak; bestela, planifikazioa irudikeria bakarrik izango delako.

Adituarentxokoa

Tabirakoren denboraldi amaierako ekitaldia

Ekainaren 22ko asanbladan erabakiko dute proposaturiko zuzendaritza onartzen duten

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Tabirakoko familiak denboraldi amaierako ekitaldia ospatu zuen, joan den zapatuan. Zuzendaritzari dagokionez, berriz, aldaketak aurreikusi daitezke. Eguaztenean, Ohiko Asanblada ospatuko da, eta bertan aurkeztu den zuzendaritza berria onartzea dago aurreikusita. Hori horrela izanez gero, Hilario Perezek kargua utziko luke, bederatzi urtean zuzenda-

ritzan lan egin eta gero. Bestetik, Haur Mailako Tabirako-Kurutziagako neskek Espainiako Txapelketa jokatu dute asteburu honetan; Vigon jokatu da txapelketa. ■ A.M.

Espainiako Txapelketa jokatu du Vigon Kurutziaga-Tabirakok

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak

Durangaldeko hainbat pilotari Elite txapelketan

Etzi jokatu da lehenengo jardunaldia; Zumarragako pilotalekuan jokatu dira

Domekan hasiko da Zumarragan jokatu den Elite txapelketa. Aurreko edizioetan legez, zortzi bikote saiatuko dira txapela janzten; tartean, Durangaldeko hainbat pilotari. Lehenengo partidak domeka goizean jokatu dituzte. Goizeko 11:00etan hasita, Urbieta-Altuna eta Uriarte,

Uriarte, Landaburu, Azpiri, Aldape eta Berasaluze lehiatuko dira, besteak beste

te-Landaburu bikoteak lehiatuko dira lehenengo. Ondoren, Mendizabal-Aldape eta Azpiri-Uzkudun bikoteek jokatu dute. Bigarren jarduna egunean izango da, eta bertan arituko da Berasaluze berriztarra.

Durangaldeko B2 Txapelketa

Bestalde, joan den zapatuan jokatu ziren Durangaldeko B2 Txapelketetako finalak: benjaminetan Elorriok lurretari 18-8 irabazi zion; umeetan, ostera, Mañaria gailendu zen, Atxondori 18-10 irabazi eta gero; azkenik, gazteen mailan, Elorriok 18-7 irabazi zion Markinari. ■ A.M.

Lehentasunezko Mailan arituko da Abadiñoko Lagun

B taldeko onenak izan dira, alde nabarmenagaz; Astraburuko B taldeak irabazi dio Lehen Mailako txapelaldun arteko kanporaketa



Astraburuko B taldearen aurkako bi partiduetan bina berdindu dute. Juanra De La Cruz

Nagusitasunez lortu du Abadiñoko Lagun taldeak Lehen Mailatik Lehentasunezkora igotzea. B taldeko liderra izan da aurtien ia denboraldi osoan, eta alde nabarmena ateratzen dio bigarren sailkatua izan den Mazusberri; hain zuzen ere, abadiñarrek 15 puntuko aldea ateratzen diete amaieran.

Txapelaldun arteko partiduan, osteratzen, ez dute zortea aldeko izan. Mailako talderik

onena nor izan den erabakitzen, txapelaldun arteko partidua jokatu behar izan dute, Astraburuko B taldearen aurka. Kanporaketa penaltietan erabaki behar izan zen, joaneko zein

Mendibeltz durangarrek ez diote mailari eutsi.
2. Mailara jaitsi dira.

itzuliko partiduetan bina berdindu ondoren. Beraz, Lehen Mailako txapelalduna Astraburuko B talde erandiotarra da.

Mendibeltzek maila galdu du Bestalde, Mendibeltz talde durangarrak ezin izan dio mailari eutsi. Denboraldi osoan bost puntu besterik ezin izan ditu lortu. Horrenbestez, datorren denboraldian Bigarren Mailan arituko da. ■ A.M.

Marianne Vosek irabazi du 2011ko Emakumeen Bira

Nagusitasunez gailendu da txirrindulari holandarra; hiru etapa irabazi ditu, gainera



Elorrioren hasi zen zapatuko kronoigoera. Juanra De La Cruz

Vosek sasoi betean dagoela erakutsi du. Jokoen zeuden bost garaipenetatik hiru lortu ditu; beste bietan bigarren amaitu du. Emma Johansson eta Judith Arndt txirrindulariek osatu dute Emakumeen Birako podiuma. Eneritz Iturriaga abadiñarra izan da lehenengo euskalduna; 21. postuan amaitu du bira.

Iragarpenak bete egin dira; Durango-Durango klasikoa irabazi ondoren, Vos faborittoa zela argi geratu zen, eta XXIV. Emakumeen Bira ere nagusitasunez irabazi du; lurretan, Lekeition eta Urduñan helmuga zeharkatzen lehenengoa izan zen. Zapatu-tuko bi etapa partzialetan, osteratzen, podiumeko bigarren mailan egoteagaz konformatu behar izan zen. Horrenbestez, Vosek bere bigarren Emakumeen Bira irabazi du; lehenengoa 2008an irabazi zuen. ■ A.M.

Ibilaldia antolatu du Zaldaik PR eta GR bideen sustapenerako

Durungaldean seinaleztaturik dauden PR eta GR ibilbideen zaintza, mantenua eta sustatzeko hitzarmena sinatu dute Landa Garapen Alkarteak eta eskualdeko hainbat udal eta mendi elkarte.

Hitzarmen horren harira, elkarte bakoitzari bide zati bat ikuskatzeko ardura ezarri zitzaion. lurretako Zaldaik elkarteari, adibidez, GR-Mikeldi ibilbideko Andikoa eta Oromiño arteko ibilbide zatia ikuskatzea egokitu zaio. Dagokion ikuskatzea zapatu honetan, hilaren

Guztira, ibilaldiak hamaika kilometroko luzera izango du.

18an, egiteko asmoa agertu du lurretako elkartek. Dei zabala egin dute, gainera. Ikus- kapena egiteaz gainera, inguruko GRak eta parajeak eza- gutzeko aukera bat da. Goizeko 8:30ean Andaparapen elkartuko dira. Andikoa autotz hurreratu ondoren, oinezan ekingo diote GR-Mikeldi ibilbideko zati hau egiteari; 11 km izango ditu ibilaldiak. ■ A.M.

Agenda

MENDIA

GR MIKELDI (Zaldaik)

Andikoa - Oromiño

Ibilbidea: 11 km

Zapatuan, 08:30ean,

Andaparapen

Itzulera ordua: Bazkal aurretik

TXIRRINDULARITZA KADETEAK

Abadiño - Urkiola

Zapatuan, 16:30ean,

San Trokaz plazan

PILOTA

BERASALUZE TXAPELKETA

- Eguiguren - Diez/

García - Aranguren

- Bereinkua - Murga /

Dario- Uribe

Astelehenean, 18:30ean,

Olaburu pilotalekuan

- Elordi - Muñoz/

Anglozar - Garat

- Andueza - Recagorri /

Legarra - Lizundia

Eguaztenean, 18:30ean,

Olaburu pilotalekuan

OIZPE TXAPELKETA

- Etxebarria /

Iparragirre

- Otaduy / Diez

- Berasaluze IX /

Bengoetxea VII

Gaur, 21:30ean,

Berrizburun

ERRUGBIA

30.URTEURRENA

Errugbi tag txapelketa

Zapatuan, 15:30ean,

San Roken

Aranda (Laubideta) Medikuen Espainiako Txapelketan egon da



Pablo Aranda triatletak Huescan ospatu diren Medikuen Espainiako Txapelketan parte hartu du. Zapatuan erlojuaren kontrako proba jokatu zen; M1 mailako txapelalduna izan zen Aranda, eta hirugarren postua lortu zuen sailkapen orokorrean. Domekan errepideko txapelketa jokatu zen; M1 mailan hirugarren amaitu zuen proba, orokorrean, osteratzen, bederatzigarren. Abadiñoko Laubideta taldeko kidea da Aranda. ■ A.M.

2012ko egutegiaren argazki lehiaketa hartu egizu parte!

Oinarriak: **anboto.org**



12 hile 12 herri

anboto komunikabideak



EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK

iunik ileapaindegia

asteleneetik
asleazkenera
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behe • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

HAIZEA ileapaindegia

Francisco Ibarra 5. lokala • Tel.: 94 681 52 61 • Durango
peluqueriahaizeadurango@gmail.com

Nutrizio zelular
aktiboa

sinthesis

kosmetika
zelular aktiboa

- 100% naturala -

- Nerea Mallabiabarrena
- Nerea estetika zentrua dauka Durangon

Garezur eta errain terapia

Nerea Mallabiabarrenak estetika eta masaje zentroa dauka Merke Garciagaz batera. Orain gutxi estreinatuta eta arrakasta handia edukitzen dabilen terapia berri bati buruz egin dugu berba; errain eta garezurreko terapiari buruz, hain zuzen ere.

Zer moduzko harrera izan du tratamendu berriak? Zer onura ditu?

Harrera oso ona izan du, eta emaitza oso onak izaten ari da. Gaixotasunak arindu eta sendatzeko baliagarria da, batez ere, nerbioekin lotura duten gaitzen kasuan. Onuragarria da, oso, migraina, zefalea eta bizkarreko asaldurentzeko. Tratamentuagaz, energia askatzea bilatzen da, horrela, oreka lortzeko.

Zertan datza tratamenduak?

Tratamendu guztia eskuekin egiten da. Lehenengo, orno zerbikalak desblokeatzen dira; sakroak askatzen dira. Bihotzaren ponpaketa ere egiten da, bide batez. Tentsioa askatzeko oso baliagarria da tratamendu hau. Hobeto arnasteko ere balio du. Tratamentua egin ahala azalpenak ematen dira, gainera.

Zenbat tratamendu jaso behar ditugu onurak igartzeko?

Hori pertsonaren arabera izaten da. Pentsatu: batzuek sesio bakarra behar izaten dute! Tratamenduko sesioa jaso ostean, hurrengo hiru egunetan ondoezik egotea posible den arren, segituan igartzen da onura. Sesioa amaituta, jarrera irizpidez batzuk azaltzen dira; kirola egitea, adibidez, gomendagarria da, baina neurrian eginda. Terapeutak emaniko gomendioak zuzen jarraituz gero, posible da tratamendua berriz ez hartu behar izatea.

ESTETIKA ZENTRUAK

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa

Nerea Mallabiabarrena • Merche García
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAko masaje indiarrek antistres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •


LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**



**EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK**



anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
SALDU

Abadiño. Muntzaratz, 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea (eskegitokia), balkoi, garajea eta trastelekua. Ia berria. Oso polita. 615 007 216

Berriz. 3 logela, 2 komun, egongela berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Tel.: 647 777 392

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular. Altzariz betea, berogailuaren galdara berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, atek eta zorua. Garajea eta igerilekuarekin. Tel.: 655 704 684

Durango. 62 m2, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa. Berriztua eta jantzita. Oso eguzkitsua. Tel.: 699 409 959

Durango. Sasikoa kalean. 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukaldea. 2 balkoi. Berogailua (gas naturala). Ganbara eta garajea. Prezio ezin hobe. Tel: 679 382 369

Durango. 94 m2. Herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), egongela, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekoa. Prezioa: 336.000 euro. Tel.: 615 760 801.

Durango. Sasikoa kalean. 70 m2, 3 logela. Balkoi. Igo-gailuarekin. Tel.: 629 414 363

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Erabat berriztatuturik eta jantzita. Gas instalazioa egin berri. Oso argitsua da. Tel.: 659 425 890.

Durango. 3 urte. 2 logela, 2 bainugela, saloia, sukaldea eta 90m2-ko terraza. 28m2-ko garajea. Tel.: 637 416 438

Elgoibar. Obra egin beharra dauka. Posibilitate haundiak. Tel.: 606 93 33 02.

Elorrio. Pisu handia, bizitzera sartzeko prest, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun eta garaje itxia. Prezio ona. Tel.: 685 734 825

Elorrio. 65 m2. Buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igoailua. Prezio ona. Tel.: 94 682 12 34

Mallabia. Baserria eta 20.000 m2-ko lur zatia salgai. Kokapen ona. 340.000 euro. Tel.: 655 702 647 (20:00-22:00 artean deitu)

Otxandio. Kale baserria. Bi solairu eta kamara. Tel.: 656 763 652

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 24.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Negoziagarria. 625 705 997

Zornotza. Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lur-saila. Tel.: 695 70 18 58
EROSI
Durango. Baserria erosiko nuke Durangaldean, lursail apur batekin. Ez du inporta

zein egoeran dagoen. Prezioa 250.000 euro (negoziagarri). Tel.: 618 936 214.

ERRENTAN EMAN
Abadiño. Pisu bat alokagai muntzaratzen. Garaje partze-la eta ganbara aukeran. Tel.: 660 646 292 / 680 581 507
Berriz. Abalarekin. 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Herri erdian kokatua. Tel.: 688 685 429

Elorrio. Erdialdean 100 m2-ko pisua alokagai. 3 gela, ezkaratza, saloia, 2 komun, igo-gailua. 605 72 12 73 (arratsalde).

ERRENTAN HARTU
Durango. Bikote euskalduna alokairuko pisu bila, Durangon, Abadiñon edo Iurretan. Biok lanean. 626 174 241
Elorrio. Bikote euskalduna alokairuko etxe bila. Biok lanean. Tel.: 653 728 187

Otxandio. Etxebizitza handi samar bat behar da alokairuan. 695 725 274 (Kristina)

OPORRETAKO ETXEA
ERRENTAN EMAN
Ainsa (Huesca). 50 m2-ko atikoa alokatzen da. Kanpora begira. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz hornitua. Garajea eta trastelekua. Tel.: 630 674 864

Almerimar (Almería). Adosatu bat alokagai. Portxea, lorategia, garajea eta igerilekua. Hondartzia eta zerbitzuak 500 metrera. Astea 500 euro; hamabostaldia eta hilabetea adosteko. Tel.: 94 62181 43

Conil (Cadiz). Etxea alokagai udarako. 3 logela eta garajea. Telefonoa: 653 733 457

Oropesa del mar (Castelló). Marina Dorren 4-6 pertsonentzako apartamentu berria alokagai. Udan eta urte osoan. Itsasora begira, hondartzatik 150 m-tara. Egon-gela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza. Garajea. Igerileku handia eta txintxaunak. Lasaia. Ez dira animaliak onartzen. 670214924. Marijo

Ramales (Kantabria). Txalata alokagai udarako. Telefonoa: 653 733 457

Torrevieja (Alacant). Bungalowa alokatzen da. Urbanizazio pribatuan, gune berdeak, igerilekuak. 3 logela, egongela, sukaldea, solariuma,... 615 779 622 (Itxaso)

PISUA KONPARTITU

PISU BILA

Durango. Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durangon edo iurretan. Deitu lasai: 658 428 612. Malick.

PISUKIDE BILA

Durango. Logela handi bat komun pribatuarekin alokagai Ibaizabal. Etxe erosoa eta berria. Tel.: 652 865 780

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Elorrio. 350 m2-ko pabilioia salgai edo alokagai, 60 m2-ko bulegoarekin. Prezio interesgarria. Tel.: 634 457 201

GARAJE/TRASTEROAK
SALDU

Berriz. 42 m2-ko garaje itxia. Argiaren eta uraren instalazioak. Komuna eta txoko txiki bat sukaldeagaz. 3 kotxe. Tel.: 615 752 136

Durango. Erdialdean, Tronperri kalean. Itxia. Saltzeko premia. Tel.: 686 734 451

Durango. 8 m2-ko trastelekua salgai Madalenan. Sarleku onak. Tel.: 629 415 416

Durango. 1. solairuan kokatua dagoen garaje itxia salgai Madalenan. 629 414 363

Elorrio. Berrio-otxoa kalean garaje itxia. 658 759 264

Elorrio. Garaje itxia erdialdean. Tel.: 660 458 756.

ERRENTAN EMAN
Durango. Garaje plaza alokairuan erdi-erdian, banco santanderren ondoan. Tel.: 619 187 799

LURSAILAK
SALDU

Zaldibar. 13.500 m2-ko lursaila salgai. Eguzkitsua. Sarbide ezin hobearekin. Ura eta argia ondoan. 629 419 411

ARGAZKILARITZA

Olympuse-410 argazki kamara salgai. Argazki kamara berria erosi nahi dut. Bi objektiborekin erosi nuen eta biekin salduko nuke, poltsa eta guzti. Interesatuak idatzi gikajulen@hotmail.com.

GAINERAKOAK

Bidali zure ordenagailua boliviara. Ordenagailua hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberran birtatz bialduko dugu Boliviako 2. mailako eskolatar. Tel.: 655 717 666

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

ETXETAKO LANAK

Durango. Portalen edo etxeen garbiketarako, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Lanaldi osoa, orduka, gauzez... Etxeetan edo ospitaletan. Tel.: 690 286 071

Durango. Goizez garbiketa lanak egiteko prest. Tel.: 665 717 458

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea. Erreferentziadun mutil eta/edo neska pertsona nagusiak zaintzeko prest. Lanaldi osoa, orduka, gauzez... Etxeetan edo ospitaletan. Tel.: 690 286 071

Durango. Logela handi bat komun pribatuarekin alokagai Ibaizabal. Etxe erosoa eta berria. Tel.: 652 865 780

etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 666 197 568

Berriz. Batxilergoa bukatu berri duen ikaslea Berrizen zein inguruko herrietan umeak zaintzeko edo eskolara emateko prest. 676871929

Durango. Umeak zaintzen eta umeei irakasten esperientziadun neska euskalduna, uztailan umeekin lan egiteko prest. Tel.: 652 732 370

Durango. Neska euskalduna arratsaldetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 690 682 512 (Oihana).

